

MOZIOA UROLA GARAICO MANKOMUNITATEA ERATZEKO BATZARRA DEITU DADIN ESKATUZ

Joan den maiatzaren 28an egindako hauteskundeak legegintzaldi berri baten hasiera dira toki-eremuan, eta ondorioz, baita Urola Garaiko Mankomunitatean ere. Ia 7 hilabete dira udal berriak eratu zirela, baina oraindik ez da Urola Garaiko Mankomunitatea eratu.

Urola Garaiko Mankomunitatearen Estatutuek ezartzen dutenez, Lehendakariari dagokio Batzar Orokorrerako deialdia egitea, kide anitzeko organoak (Batzar Orokorra eta Batzorde Eragilea) eta pertsona bakarreko organoak (lehendakaria eta lehendakari ordeak) eratu daitezten.

Baina, jarduneko lehendakariak oraindik ez du Urola Garaiko Mankomunitateko Batzar Orokorra deitu. Batzarra ez deitzea estatutuen ez betetzea da, gainera udalkideak funtzioetan egonik ezin dira izaera organikoko erabakirik hartu eta horrek beste batzuen artean, ondorio hauek ditu:

- Urola Garaiko Mankomunitateko estatutuak eta lanpostuen zerrenda aldatzea beharrezkoa da Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako diru laguntzak jasotzen jarraitu ahal izateko. Aldaketa hau ez bada lehenbailehen egiten 2023ko diru laguntza galduko da.
- Urola Garaiko Mankomunitateko aurrekontuen lanketarik ez da egin, ondorioz, mankomunitateko parte diren bestelako erakundeetan eragina du, UGGASA eta UGLEn esaterako.
- Urola Garaiko Mankomunitatea Urola Garaiko Garapen Agentzia S.A.ko (UGGASA) bazkide bakarra da. Pasa den otsailetik ez dela administrazio kontseilurik egin, ia urte bat, lehendakariak ez duelako deitu. Honi gehitu behar zaio mankomunitatea oraindik eratu ez denez, administrazio kontseilu berria ez dela izendatu. UGGASAk hainbat proiektu ditu eskuartean eskualdeko lehiakortasun planaren berrikuspena esaterako, eta bertan planteatzen diren erronka berriei aurre egiteko lanpostuen zerrenda aldatu behar da
- UGGASako 2024ko aurrekontua eta 2023ko itxiera ere aztertzeke daude, baita ere, 2023ko gestio planaren jarraipena eta 2024ko gestio plana onartzea.

Zalantzarik gabe, guzti honek ondorio kaltegarriak ditu Ezkio, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako herritarrengan, UGLE eta UGGASA erakundeengan eta gure herrien etorkizunean.

MOZIOA

1. [REDACTED]
2. Legazpiko Udalak Urola Garaiko Mankomunitateko jarduneko lehendakaria den Jon Luquiri eskatzen dio Mankomunitateko eraketa batzarra atzeratzearen arrazoiak azaltzeko.

Legazpin, 2023ko urtarrilaren 12an



Dokumentu hau egiazkoa dela
07E80006F8EA0004J4XTT5A0Q6F5A0
OSR7L7X7L7
kodearekin egiazta daiteke
ondorengo Entitatearen Egoitza
Elektronikoan

SINATZAILA - DATA		ENTRADA: 2024205
AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI - LEGAZPIKO UDALA (P2005500J-AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI - LEGAZPIKO UDALA) - 12/01/2024		Esp.Data: 12/01/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/01/2024		Ordua: 07:52
[RR.DD.] REGISTRO DE DOCUMENTOS ENTRADA 1 2024 205 - 12/01/2024 07:52		Und. reg:1

CSV: 07E80006F8EA0004J4XTT5A0Q6F5A005R7L7X7L7





**LEGAZPIKO
UDALA**

MOZIOA

**GAIA: MOZIOA UROLA GARAIKO MANKOMUNITATEA ERATZEKO BATZARRA DEITU
DADIN ESKATUZ**

PROPOSATU DUTENAK: LEGAZPIKO EH BILDU

OSOKO BILKURA: 2024/01/31

BOZKETAREN EMAITZA:

- ALDE: 13 (EAJ-PNV, EUSKAL SOZIALISTAK, LEGAZPIKO EH BILDU ETA LEGAZPIKO BERDEAK).**
- AURKA:**
- ABSTENTZIOAK:**